

Euskal preso politiko informazioa Nafarroako egunkarietan

(*Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias*)

Koldo Castañeda Vallejo
Ikertzailea

Nafarroako, *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias* egunkariak euskal presoengatik 1998 eta 1999. urteetan agerturiko albisteak aztertu dira ikerlan honetan. Bi egunkari hauetan gai honi ez diote garrantzi handirik eman eta presoengatik eskubideen aldeko erakundeak edo bere senideak ez dira aintzakotzat hartu informazio iturri bezala. Urruntasunez jorratu dituzte gai honi dagozkion informazioak. Askotan irakurleari informazio zehatza eman beharrean, iritzia sortzeko ahaleginetan aritu da *Diario de Navarra*, bereziki. Hala ere, albisteak joratzeko garaian kutsu positiboa ere antzematen da bi egunkarietan; agian, une horretan zegoen egoera politikoa zela medio.

This report analyses the news about Basque prisoners appeared in the papers *Diario de Navarra* and *Diario de Noticias*, both from Navarre, in 1998 and 1999. This topic has not been thoroughly treated and the organisations that work in favour of the rights of prisoners and their relatives are not considered as information sources. The news about this subject have been treated distantly. *Diario de Navarra* often tries to create an opinion in spite of giving exact information. However, there is also a positive treatment in both newspapers, maybe due to the political situation in that moment.

1. Sarrera

Kartzeletako mundua oso ezezaguna da gizarte zati handi batentzat¹. Mundu horretan gertatzen dena jakin ahal izateko hedabideez baliatzen gara, gehienbat. Hala ere, euskal presoenginguruan hedabideek islatzen dutena testuinguru handia-goan kokatu behar dugu. Izan ere, kazetariak ez dute gertakariak aipamen soila egiten; errealitatearen irudia ere ematen digute. Errealitatearen eredia eskaintzen digute (Rodrigo, 1991: 19).

Errealitatearen erakitzeko prozesu honetan Euskal Herriak pairatzen duen egoera gatazkatsuen aurrean hedabide guztiek jarrera eta iritzi zehatzak dituzte eta zentzu horretan azterketa hau egitean definizio arazoak ikus ditzakegu. Izan ere, Euskal Herrian dagoen gatazka politikoaren ondorioz kartzeletan dauden gizabanakoen arazoak, ideiak eta abar Nafarroako bi egunkarietan nola islatzen diren ikertu da. Pertsona hauek batzuen ustez preso politikoak dira eta beste batzuek, berriz, izaera politikoa ukatzen diete.

Egia esanda, *terrorismo* hitza da gehien erabiltzen dena indarkeria definitzeko, baina hau esatean motz geldi gaitzeko. Indarkeria-ekintza guztiak ez baitira terrorismotzat hartzen; esate baterako, emakumeen kontrako indarkeria.

Ikerlan batzuetan *terrorismo* hitzaren erabilpena desagokizatzen jo da. Erakunde batzuk terroristatzat hartzetik talde armatua izatera egun gutxiko kontua izan da. Hor dugu IRAren kasua edo ETAren Aljeriako elkarrizketen garaia.

Terrorismo hitza maiz erabili izan da benetako egoera politikoa, soziala eta ekonomikoa estaltzeko. Hitz horren azpian estatusaren kontrako mugimenduak eta gizabanakoak kriminalizatzeko saiakerak egin dira. Estatus horren kontra aritzeko dauden arrazoiak eta ideiak ezkututzen dira Michel Collon-ek dioen bezala (1995: 322): «La etiqueta “terrorismo” tiene como función impedir cualquier tipo de información sobre las posiciones reales del adversario político, sobre el análisis que hace de las contradicciones sociales de un país y sobre los intereses que defiende». Aldi berean, ideia horien ordeztelako diskurtso komunikatiboak sortzen dira M. Rodrigo-k bere liburuan azaltzen duen bezala.

Ez da kasualitatea talde armatuaz aritzerakoan *terrorismo* hitz peioratiboa erabiltzea eta, aldi berean, talde hauei izaera politikoa ukatzea. Hala ere, kontraesana dago horrelako dikotomia bultzatzen denean. Alde batetik, terrorismoak ez du zerikusirik politikarekin, baina, beste aldetik, alderdi politikoek, agente sozialek eta hedabideek bortxa ekintza hauetaz egiten dituzten irakurketak erabat politikoak izaten dira; Espainian kasu hauetarako legeria berezia dago, bai eta ezohiko auzitegiak ere.

Guk geuk, EHUKI taldeak egiten duen hautaketarekin bat egin dugu (1997: 50): «Horregatik, gerra ekintzak izan gabe baina helburu politikoez egiten diren ekintza armatuei, bortizkeria politikoa esaten die berak».

1. Autoreak, kartzelan zegoela egin zuen ikerlan hau, Iñaki Zabaleta Urkiolaren zuzendaritzapean, azken honen doktore-ikastaroaren barnean.

Egun 500 gizabanako baino gehiago dago Espainiako zein Frantziako kartzeletan indarkeria politikoarekin zerikusia dutelako akusaziopean. Arestian esan den bezala, burutu dugun ikerlan honetan Nafarroako hedabideek preso hauen egoerari ematen dioten garrantzia, nolako iturriak erabiltzen dituzten, zer nolako gaiak jorratzen dituzten eta diskurtsoaren estiloa aztertu ditugu.

Kartzelaren mundua ezezaguna dela esan dezakegu, orokorrean. Hormen beste aldean zer gertatzen den, zein den hor bizi den egoera, bertan giltzapean daudenen iritziak eta jarduerak arras ezezagunak dira. Euskal presoek pairatzen duten egoera ezagutu ahal izateko beren familiarrek eta lagunek sortutako erakundeen lana itzela izanda ere, hedabideetara jo behar dute gizarteak ezagut dezan kartzeletako mundu arrotz horretako errealitatea. Baina, erakunde hauek ezin dute berria eraiki, eginkizun honetaz kazetariak arduratzen baitira.

Beraz, komunikabideek, kasu honetan ere, paper garrantzitsua betetzen dute gai honi garrantzia emanez edo kenduz, gai honen inguruko iritziak emanez, eztabaida sozialaren agendatik presoen gaia ezabatuz eta abar. Nolabait, kartzeletan bizi den errealitatea birsortzen dute eta horixe da ikertu nahi izan duguna, hain zuzen ere.

2. Ikergalderak eta hipotesiak

2.1. Lehenengo arloa: ezaugarri periodistikoak

1. Informazio kopurua: Bi egunkarien artean desberdintasunik al dago espazio aldetik?
2. Informazioaren kokapena: Zein ataletan agertzen dira euskal presoen albisteak?
3. Informazioaren egileak: Zein neurritan dira kazetariak edo berri-agentziak informazioaren egile?
4. Informazioa eta iritzia: Zein ehunekotan agertzen da albiste edo iritzi modura?

2.2. Bigarren arloa: protagonistaren ezaugarriak

1. Protagonistak identifikatzea: Zeintzuk dira informazioaren protagonistak? Erakundeak, alderdiak, lider politikoak, presoak, eta abar? Zein alderdi politiko agertzen dira gehien presoen gaietan? Zein neurritan dira presoak berak albisteko protagonistak?
2. Kolektibotasunaren presentzia: zenbat albiste dagokie presoeri era kolektiboan hartuta, talde modura ("los presos")? eta zenbat preso bakoitzari, era indibidualean?

2.3. Hirugarren arloa: informazioaren gaia eta balorazioa

1. Gaia: Zein gairekin agertzen dira lotuta euskal presoen berriak? "Euskal Herriratzea", "erreinsertzioa", eta abar?
2. Balorazioa: Euskal presoen ikuspuntutik, zenbat informazio da positiboa, negatiboa, edo indeterminatua?

2.4. Laugarren arloa: diskurtsoaren estiloa

1. Presoen deiturak: Zein deitura diskurtsibo erabiltzen da informazioetan, euskal presoak izendatzeko?

3. Metodologia

3.1. Unibertsoak

Ikerketa honetan erabilitako unibertsoa hau izan da: Nafarroan editatzen diren egunkariak. *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias* dira Nafarroan argitaratzen diren egunkari bakarrak eta horregatik definitzen dute bi horiek ikerketa honen unibertsoa.

Bien ideologia desberdina bada ere, *Diario de Navarra* aspalditik —1903. urtean atera zuen bere lehenbiziko alea— argitaratzen da eta beti egon da lotuta lurralde honen eskuinekoen interesekin. Salmenta kopuruari dagokionez, egunkari honen garrantzia ezin da ukatu; izan ere, 1999. urteko lehenengo hiruhilekoan 64.681 ale saldu baitzuen². Bestalde, *Diario de Navarra* egunkariak La Información S.A. deituriko komunikazio enpresa taldean parte hartzen du herrialde honetan garatuko den komunikazio berrien sarea prestatuz.

Diario de Noticias egunkaria, berriz, berrixeagoa da, nahiz eta lehenago *Navarra Hoy* izenarekin ezagutu. Salmenta kopurua ere desberdina da eta ez da ailegatzen *Diario de Navarra* egunkariak dituen salmentetara. Ideologia aldetik oso aldakorra izan dela esan daiteke; hau da, hasiera batean, PSNren inguruan sortua omen zen, beranduxeago CDN alderdiaren inguruan zebiltzan enpresa buruek erosi zuten eta azken garaietan EAJ-PNVko alderdi kide batzuk omen dira nagusiak.

Ikerketaren denborazko unibertsoa 1998. urteko ekainean hasten da eta 1999. urteko apirilean bukatzen. Kontuan izan behar da ikertutako garaia denboraldi batean ETAk su-etena aldarrikatu zuela, hots, 1999ko irailean. Ikerketa honen denborazko unibertsoa bukatzen denean aipatu su-etan horrek berean jarraitzen zuen.

Ikerketaren edukien unibertsoa euskal preso politikoen inguruko informazioek eta iritziek osatzen dute.

3.2. Laginak

Arestian esan den moduan, ikerketa honetako egunkariak *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias* dira.

Ikerketa honetako laginak hautatzeko “aste konposatua” izeneko era erabili da, zientifikoki ongi frogatua. Horretarako, 1998. urteko egun bat, berez, aukeratu dugu eta hurrengo egunak lortzeko 50 egun gehitu dira. Ikerketan ahalik eta fidagarritasun handiena lortzeko asmoz, bi aste konposatu erabili dira. Erabilitako asteak 1998ko maiatzaren 7an hasi eta 1999ko apirilaren 6an bukatzen dira.

2. OJDren datuen arabera.

Egunkari hauetan aztertu ez diren atalak hauexek dira: nazioartea, ekonomia, kirola eta telebista. Hala ere, bi egunkari hauek dituzten atalak desberdinak dira, nahiz eta edukiak antzekoak izan³.

3.3. Analisi eta neurketa unitateak

Analisi-unitatea dela eta, esan behar da albistearen atal guztiak aztertu direla, alegia, titulua, azpitulua, aurretitulua, sarrera eta testua.

Neurketa-unitatea, berriz, orrialdean informazioak duen espazioaren arabera da. Zentzu honetan, orrialde osoko informazioari 1 tamaina egokituko zaio; orrialdearen 3/4ak dituen informazioari 0'75 eta horrela informazio guztiek euren balorea izanen dute.

3.4. Katetoria sistema

Katetoria sistemak ikertutako arlo desberdinei dagozkie, hots, informazio kopurua, informazioaren protagonistaren ezaugarriak, informazioaren gaia eta diskurtsoaren estila.

3.4.1. Lehenengo arloa: ezaugarri periodistikoak

3.4.1.1. Informazio kopurua

Atal honetan bi egunkari hauek ikertutako gaiari eskaintzen dioten espazio kopurua aztertu da. Halaber, eskaintako espazioa kontuan hartuta, bien arteko konparazioa egin da ea desberdintasun nabaririk ote dagoen ikustearren.

3.4.1.2. Informazioaren kokapena

Aztertutako bi egunkari hauek sailen banaketa modu desberdinean egiten badute ere, ikerketa honetan beste katetoria batzuetan batu ditugu. Hurrengo katetoria hauek erabiliko ditugu:

1. Estatuak: Espainiako albiste politikoak kokatzen dira.
2. Nafarroa: Nafarroako albisteak jorratzen diren saila da.
3. Eskualdea: Nafarroako eskualdeetako albisteak lantzen dira. Politikaz gain, bestelako albisteak ere azaltzen dira; esaterako, gizarte sailean lantzen ohi diren gaiak.
4. Iritzia: kazetariak eta zutabegileak beren ideiak zabaltzeko erabiltzen dute.
5. Gutunak: irakurleak beren ideiak azaltzeko duten gunea.
6. Beste: kasu honetan gai berezi honi eskaintako orrialde bereziak izan ohi dira.

3.4.1.3. Informazioaren egileak

Hurrengo katetoria hauek erabiliko ditugu:

3. *Diario de Navarra* egunkarian «Nacional» atala *Diario de Noticias* egunkariaren «España» atalaren baliokidea da.

1. Agentziak: hauek albistea landu ondoren, mezubideetara helarazten dute.
2. Erredakzio-kazetariak: medioen kazetariak dira eta hauek albisteak lantzen dituzte. Normalean haien sinadura azaltzen da albistearekin batera.
3. Sinatu gabeak: albiste hauen egileak ez dira identifikatzen. Ez da inoren sinadura azaltzen.

3.4.1.4. Informazioa eta iritzia

Kategoria hauek erabiliko ditugu:

1. Informazioa: kategoria honetan ohiko bost W-en formula, iraulitako piramidea erabiltzen duten berriak kokatu ditugu. Hau da, zer, non, nor, nola eta zergatik egitura erabiltzen dutenak. Kazetariaren helburua informatzea da.
2. Iritzia: kazetaritza mota honen helburua hartzailearen erreakzioa eragitea da; kazetariak hartzailea konbentzitu nahi du eta horretarako informazio albisteetan erabiltzen ez den beste egitura bat erabiltzen du (Ramírez de la Piscina, 1998: 31).

3.4.2. Bigarren arloa: protagonistaren ezaugarriak

Arlo honetan albisteen protagonistak aztertu nahi izan ditugu. Zentzu honetan, beste hiru atal erabili dira, hots, protagonistak identifikatzeko, protagonista horiek alderdiak direnean alderdi horiek identifikatzeko eta euskal presoak multzoka edo banaka azaltzen diren aztertzeke.

Lehenengoari dagokionez, esan behar da euskal presoen gaia aztertutako albiste guztietan azaltzen bada ere, beti ez direla albiste horien protagonista nagusiak izaten. Beste pertsona edo erakunde batzuk azaltzen zaizkigu gai honi buruz hitz egiten. Bigarrenari dagokionez, berriz, alderdi politikoak protagonista nagusiak izanda, alderdi bakoitzaren presentzia aztertu da. Bukatzeko, hirugarren atalean euskal presoak multzo modura edo modu indibidualean agertzen diren aztertu da.

3.4.2.1. Protagonistak identifikatzea

Atal honetan erabiliko ditugun kategoriak hauexek dira:

1. Alderdiak: alderdi politikoak dira albisteen protagonista nagusiak. Kategoria honetan sartutako alderdiak hauek izan dira: HB, IU, EAJ, EA eta PSOE.
2. Gobernua: kategoria honetan Espainiako zein Nafarroako Gobernuaren ordezkariak izan dira albistearen protagonistak, bai eta UPN eta PP alderdiak ere.
3. Presoak: kasu honetan protagonista nagusiak euskal presoak dira edo hauen senideen zein haien aldeko erakundeak.
4. Besteak: gainontzeko kategorietan sartzen ez diren bestelako erakunde edo pertsonak.

3.4.2.2. Alderdiak presoen informazioan

Arestian esan den bezala, alderdiek duten presentzia neurtu da atal honetan. Kontuan izan behar da UPN eta PP alderdi politikoak aurreko atalean Gobernuak kategorian kokatu ditugula.

Kategoria hauek erabiliko ditugu:

1. Herri Batasuna
2. Ezker Batua
3. EAJ
4. PSOE
5. UPN eta PP

3.4.2.3. Kolektibotasunaren presentzia

Hurrengo kategoria hauek erabiliko ditugu:

1. Kolektiboa: kategoria honetan euskal presoak multzo moduan hartzen dituzten albisteak kokatuko ditugu.
2. Indibiduala: euskal presoengatik inguruko informazioa preso jakin bati dagokionean kokatuko da hemen albisteak.

3.4.3. Hirugarren arloa: informazioaren gaia eta balorazioa

Bi atal desberdin aztertuko ditugu. Euskal presoengatik berriak jorratzen direnean, beste gai batzuk ere lantzen dira; lehenengo atal honetan gai horiek aztertuko ditugu, hain zuzen ere. Bigarrean, berriz, albiste hauek nolako kutsua duten aztertuko dugu. Hau da, albisteek itsatsita dituzten nolakotasun kategoriak izanen dira ikergai.

3.4.3.1. Gaia

Kategoria hauek erabiliko ditugu:

1. Espetxe politika: euskal presoengatik ezarri zaien espetxe politikaren inguruko albisteak izaten dira. Esaterako, Euskal Herritarre edo hurbilpen gaiak.
2. Sartu eta irteerak: euskal presoak askatu edo euskal hiritarren bat kartzelan sartzearen berri ematen duten albisteak dira.
3. Erreintsertzioa: euskal presoengatik afera amaitzeko, batzuen proposamena erreintsertzioa da. Politika hau ETA pm-ren kide ohiekin hasi zen.
4. Kartzelako egoera: euskal presoengatik kartzeletan bizi duten egoera lantzen duten albisteak izaten dira.
5. Besteak: aurreko gaiak jorratzen ez dituzten albisteak.

3.4.3.2. Balorazioa

Esan den moduan, atal honetan albisteek euskal presoen bizi baldintzekiko duten balorazio kutsua ikertuko dugu. Hurrengo kategoria hauek erabiliko ditugu:

1. Positiboa: kutsu positiboa duten albisteak kokatuko ditugu kategoria honetan.
2. Negatiboa: kutsu negatiboko albisteak izaten dira.
3. Indeterminatua: ez kutsu positiborik ezta negatiborik ere ez duten albisteak.

3.4.4. Laugarren arloa: diskurtsoaren estiloa

3.4.4.1. Presoen deiturak

Euskal presoen gaia jorratzean, mezubideek deitura diskurtsibo desberdinak erabili ohi dituzte, eta deitura hauek aztertzea izanen da atal honetako ikergaia. Kategoria hauek erabiliko ditugu:

1. ETA: kategoria honetan euskal presoak ETako preso edo terroristatzat hartzen dituzten albisteak sartuko dira.
2. Euskal Presoak: preso politikotzat edo euskal presotzat hartzen dituzten albisteak.
3. Pertsona izena: albiste hauetan euskal presoak beren izen-abizenekin identifikatzen dira.
4. Presoak: inolako adjektiborik gabeko deitura erabiltzen da kasu honetan.

4. Emaitzen aurkezpena

4.1. Lehenengo arloa: ezaugarri periodistikoak

4.1.1. Informazio kopurua

Hasteko, bi egunkari nafar hauek beren orrialdeetan euskal presoen gaiari eskaini dioten espazioa jakin nahi genuen eta beste aldetik bien arteko diferentziarik ote zegoen aztertu.

1. Taula. Presoen inguruko informazioa espazioan

| | Guztira |
|---------------------------|----------------|
| Diario de Navarra | %30,4 |
| Diario de Noticias | %69,6 |
| Guztira | %100,0 |

N= 15,45 orrialdeko espazioa

Lehenengo eta behin, esan behar da ikerturiko bi egunkarietan euskal presoen gaiari eskainitako espazioa %15,45ekoa dela. Bi egunkarien arteko aldea nabaria dela azpimarratu behar da; izan ere, gai honi buruz argitaratu denaren %69,6a *Diario de Noticias*ek atera du. Gai honen presentzia handiagoa da egunkari honetan bestean baino. Hala ere, eta eskainitako orrialdeko espazioa %15,45a baino ez dela kontuan hartzen badugu, bi egunkari hauetan gai honek duen presentzia murrizta dela esan daiteke.

4.1.2. Informazioaren kokapena

Euskal presoen inguruko albisteak atal desberdinetan azaltzen direnez, bi egunkari hauetan zein ataletan kokatzen dituzten aztertu dugu. Izan ere, egin nahi izan dugun ikerketarako ez da gauza bera politika gaiak jorratzen diren atalean kokatzea edo gertakariak aztertzen diren sailean kokatzea, esate baterako.

2. Taula. Euskal presoen informazioa egunkarien ataletan

| | Estatua | Nafarroa | Iritzia | Gutunak | Eskualdea | Beste | Guztira |
|---------------------------|---------|----------|---------|---------|-----------|-------|---------|
| Diario de Navarra | %52,9 | %23,5 | %23,5 | %0,0 | %0,0 | %0,0 | %100,0 |
| Diario de Noticias | %50,0 | %19,2 | %0,0 | %3,8 | %11,5 | %15,4 | %100,0 |
| Guztira | %51,2 | %29,9 | %9,3 | %2,3 | %7,0 | %9,3 | %100,0 |

N= 43 item.

Albiste gehienak Estatua atalean argitaratu dituzte biek. Atal honetan gai politikoak jorratu ohi dituzte, batez ere. Nafarroa atalean ere bi egunkari hauek gai honen albisteak kokatu dituzte ehuneko handian; *Diario de Navarraren* kasuan %23,5 eta *Diario de Noticias* egunkariak %19,2. Baina, *Diario de Navarrak* Iritzia atala ere askotan erabili du gaia jorrazteko (%23,5). Datu hau azpimarratu behar dela uste dugu, sail honen helburua informatzea barik iritzia sortzea baita. *Diario de Noticias* egunkariak ez du ezta behin ere Iritzi saila erabili. Dena den, azken egunkari honek Gutunak eta Eskualdea sailak noizbehinka erabili ditu. Egunkari honek euskal presoen gaia orrialde berezietan (%15,4) ere landu du.

4.1.3. Informazioaren egileak

Albiste nork egin duen azaltzen da. Horregatik, hiru multzotan sailkatu daude, hots, agentziek egindakoak, erredakzioko kazetariak eginikoak eta sinatu gabe argitaratu direnak.

3. Taula. Informazioaren egileak

| | Agentziak | Erredakzio kazetariak | Sinatu gabe | Guztira |
|---------------------------|-----------|-----------------------|-------------|---------|
| Diario de Navarra | %52,94 | %35,29 | %11,76 | %100,00 |
| Diario de Noticias | %57,69 | %38,46 | %3,85 | %100,00 |
| Guztira | %55,81 | %37,21 | %6,98 | %100,00 |

N= 43 orriko espazioa.

Bietan agentziek landutako albisteak erabiltzen dira, batez ere. Argitaratutakoaren erdia baino gehiago agentziek bidalitakoa da eta erredakzioan dauden kazetariak eginikoa nabarmen baxuagoa da. Sinatu gabeko albisteak ez dira maiz azaltzen, *Diario de Navarran* (%11,76) bestean baino gehiago diren arren. Gizartean dagoen horrelako gai batek, informazio agentzietara jotzeko beharrik izan gabe, bertako kazetariari arazoan sakontzeko aukera ematen diela pentsa daiteke. Hala ere, biek jotzen dute agentzietara.

4.1.4. Informazio eta iritzi portzentaia

Kategoria sistemak azaltzerakoan informazioaren eta iritziaren arteko desberdintasuna azaldu dugu. Orain Nafarroako bi egunkarietan argitaraturiko albisteak zein ehunekotan diren informazioa edo iritzia aztertuko da.

4. Taula. Informazio eta iritzien ehunekoak

| | Informazioa | Iritzia | Guztira |
|---------------------------|-------------|---------|---------|
| Diario de Navarra | %70,6 | %29,4 | %100,0 |
| Diario de Noticias | %88,5 | %11,5 | %100,0 |
| Guztira | %81,4 | %18,6 | %100,0 |

N= 43 item.

Datuen arabera, biek euskal presoen gaia bereziki Informazio moduan lantzen badute ere, *Diario de Navarra* egunkariak Iritzia modu nabarmenean ere askotan (%29,4) erabiltzen du. Egunkari honek gai honi eskainitako espazioaren datua kontuan izaten badugu, Iritzi moduan lantzeak duen garrantzia argi ikus daiteke.

4.2. Bigarren arloa: protagonistaren ezaugarriak

4.2.1. Protagonistak identifikatzea

Aztertutako lehenbiziko mailako protagonistak aztertzeko bi atal sortu ditugu. Lehenengo honetan lau multzo sortu ditugu. Izan ere, *alderdiak* atalean alderdi politikoak protagonistak direnean kokatu dira; *Gobernua* atalean, berriz, Espainia zein Frantziako Gobernuak eta beren menpe dauden administrazioak kokatu ditugu; *Presoak* atalean, hauek zein euren inguruko giza erakundeak azaltzen dira; *Besteak* atala gainontzeko ataletan sartzen ez direnek osatzen dute.

Dena den, *alderdiak* atalean ez dira UPN eta PP alderdiak kontuan hartu, *Gobernua* atalean kokatu baititugu. Izan ere, bi alderdi hauek Espainiako zein Nafarroako gobernuak beren esku dituzte eta, beraz, bien iritziak zein gobernuenak berdinak dira.

Euskal presoak zein neurritaraino diren beren inguruko informazioen protagonistak ere aztertu nahi izan dugu eta beste erakunde eta alderdi politikoaren protagonistarekin konparatu da.

5. Taula: Informazioaren protagonistak

| | Alderdiak | Gobernua | Presoak | Besteak | Guztira |
|---------------------------|-----------|----------|---------|---------|---------|
| Diario de Navarra | %41,18 | %35,29 | %5,88 | %17,65 | %100,00 |
| Diario de Noticias | %46,15 | %26,92 | %23,08 | %3,85 | %100,00 |
| Guztira | %44,19 | %30,23 | %16,28 | %9,30 | %100,00 |

N= 43 orriko espazioa.

Bi egunkarietan alderdiak eta gobernua dira protagonista nagusiak, bien artean albiste hauen protagonismoaren ehuneko handi bat hartzen dute, hots, %75 baino gehiago. *Diario de Navarra* euskal presoak edo beren eskubideen aldeko erakundeak oso gutxitan azaltzen dira protagonista moduan: %6ra ez da ailegatzen. *Diario de Noticias* egunkarian, berriz, gobernuen eta alderdien atzetik bada ere, euskal presoak %23 azaltzen dira.

4.2.2. Alderdiak euskal presoen informazioan

Ikusita gobernua eta alderdi politikoak direla gehienbat informazioaren protagonista nagusiak, oraingo honetan euskal presoengatik gaitan zein alderdi politiko agertzen diren gehien ikertu dugu. Horretarako, lehen Gobernua atalean PP-UPN eta gainontzeko alderdi politikoak kontuan izan ditugu.

6. Taula: Alderdiak albisteetan

| | UPN-PP | PSOE | PNV | HB | IU | Guztira |
|---------------------------|--------|-------|-------|------|------|---------|
| Diario de Navarra | %46,2 | %38,5 | %7,7 | %7,7 | %0,0 | %100,0 |
| Diario de Noticias | %38,9 | %44,4 | %11,1 | %0,0 | %5,6 | %100,0 |
| Guztira | %41,9 | %41,9 | %9,7 | %3,2 | %3,2 | %100,0 |

N= 29 item.

UPN-PP eta PSOE alderdi politikoak dira euskal presoengatik inguruko protagonista nagusiak, zalantzarik gabe; bien artean ia %83 betetzen dute. *Diario de Navarra* egunkariari dagokionez, UPN-PP alderdiaren presentzia handia den neurrian (%46,2koa), *Diario de Noticias*en PSOEren ehunekoa UPN-PP alderdiana baino handiagoa da (%44,4koa). Egungo espetxe politika diseinatu eta sostengatzen duten alderdi hauek erabateko nagusitasuna dute bi egunkarietako euskal presoengatik informazioa lantzeko garaian. Gainontzeko alderdien datuak aztertuta, PNVri ematen zaion garrantzia ez dator bat alderdi honek Nafarroan duen boto kopuruarekin eta indar sozialekin; hala ere, *Diario de Noticias*en bestean baino gehiago azaltzen da. Berriz, HBren kasuan *Diario de Noticias* egunkarian ez dira bere iritzia azaltzen eta *Diario de Navarra* portzentaia txikian (%7,7). IU *Diario de Navarra* ez da agertzen eta *Diario de Noticias*en, ordea, oso gutxitan (%5,6).

4.2.3. Kolektibotasunaren presentzia

Euskal presoengatik gaia jorratzen denean, zenbat albiste dagokie presoeri era kolektiboan hartuta, talde modura ("los presos")? eta zenbat era indibidualean? Gure ustez inportantea da jakitea euskal preso bakoitzaren inguruko informazioa ematen den edo modu orokorrean. Dena den, argitu behar da hemen aztertu dena ez dela Euskal Preso Politikoen Kolektiboa. Oraingo aztergaia multzoari eta banakoengatik azterketari dagokio.

7. Taula. Presoak kategoria multzo modura edo indibiduala

| | Multzoa | Indibiduala | Guztira |
|---------------------------|---------|-------------|---------|
| Diario de Navarra | %88,2 | %11,8 | %100,0 |
| Diario de Noticias | %84,6 | %15,4 | %100,0 |
| Guztira | %86,0 | %14,0 | %100,0 |

N= 43 item

Bi egunkari nafar hauek nabarmen euskal presoen gaia jorrazteko garaian, multzo moduan hartzen dituzte eta ez modu indibidualean. Honen arabera, euskal presoen identitatea ezkututzen dute eta honen bidez urruntasun itxura lor daiteke. Euskal presoen identitate zehatza ez dute azaltzen; horrela, ez da bakoitzaren arazoaz, bizimoduaz edo salaketaz hitz egiten.

4.3. Hirugarren arloa: informazioaren gaia eta balorazioa

4.3.1. Gaia

Euskal presoek buruzko albisteak normalean gai bati lotuta azaltzen dira eta, zentzu honetan, atal honetan gai horiek zeintzuk diren eta bi egunkari hauen artean desberdintasunik dagoen aztertu da.

8. Taula. Gaia.

| | Espetxe- -politika | Sartu- irteera | Erreinser- tzioa | Gartzelako egoera | Besteak | Guztira |
|---------------------------|-----------------------|-------------------|---------------------|----------------------|---------|---------|
| Diario de Navarra | %52,9 | %11,8 | %11,8 | %0,0 | %23,5 | %100,0 |
| Diario de Noticias | %57,7 | %15,4 | %3,8 | %7,7 | %15,4 | %100,0 |
| Guztira | %55,8 | %14,0 | %7,0 | %4,7 | %18,6 | %100,0 |

N= 43 orriko espazioa.

Espetxe-politika da gehien jorrazten den gaia. Bi egunkarietan euskal presoek albisteek erdia baino zertxobait gehiago agertzen da gai honi lotuta. Euskal Herriratzearen edo hurbilpenaren aukera, egungo sakabanaketa-politikaren aurrean azaltzen da gai honen barruan, gehienbat. Alde handiaz, euskal hiritarrak kartzelaraten dituztenean edo kartzelatik ateratzen direnean, egunkari hauetan gertaera horiek azaltzen badira ere, espetxe politikak duen garrantzirik ez dute. Kartzeletan euskal presoek bizi duten egoerak *Diario de Navarra* ez du inolako islarik eta *Diario de Noticias*en, berriz, oso txikia du. *Diario de Navarra* Besteak atalean ehuneko handia azaltzen da; batez ere, garai horretan ETArekin su-etena zegoen eta askotan balizko bake iraunkor batean euskal presoekin zer egin zitekeen aztertzen zen.

4.3.2. Balorazioa

Euskal presoek bizi baldintzen ikuspuntutik egunkari hauek argitaraturiko albisteek zer-nolako kutsua duten aztertu nahi izan dugu. Zentzu horretan, eta

ikuspuntu horretatik bakarrik, zenbat informazio den positiboa, negatiboa, edo indeterminatua aztertu da.

9. Taula: albisteen balorazioa.

| | Positiboa | Negatiboa | Indeterminatua | Guztira |
|---------------------------|-----------|-----------|----------------|---------|
| Diario de Navarra | %52,9 | %29,4 | %17,6 | %100,0 |
| Diario de Noticias | %65,4 | %23,1 | %11,5 | %100,0 |
| Guztira | %60,5 | %25,6 | %14,0 | %100,0 |

N= 43 item.

Albisteen erdia baino gehiago kutsu positiboan egina dagoela esan daiteke. Bi egunkarien arteko desberdintasuna ez da oso handia. Kutsu negatiboa duten albisteak *Diario de Navarra*n ematen dira, baina, ez dira %30era ailegatzen. Positibo izate honen arrazoia ETAk eginiko su-etenaren garaian irekitako prozesu politikoan oinarritzen dela esan daiteke.

4.4. Laugarren arloa: diskurtsoaren estiloa

4.4.1. Presoen deiturak

Euskal presoak izendatzeko bi egunkari hauek informazioetan zein deitura diskurtsibo erabiltzen dituzten izan dugu aztergai atal honetan. *ETA* atalean terroristatzat hartu edo *etarra* hitza erabili denean. Euskal presoak atalean modu honetan edo preso politikotzat hartu dituzten albisteak kokatu ditugu. Presoak atalean, berriz, inolako adjektiborik gabe azaltzen dira.

Atal hau inportantea da euskal preso politikoen inguruan erabiltzen diren izen-deiturak ikusteko eta bi medio hauetan zer-nolako aukeraketa egiten den ere ezagutu ahal izateko.

10. Taula: presoen deiturak

| | ETA | Presoak | Pertsona-izena | Euskal presoak | Guztira |
|---------------------------|-------|---------|----------------|----------------|---------|
| Diario de Navarra | %53,3 | %26,7 | %13,3 | %6,7 | %100,0 |
| Diario de Noticias | %43,5 | %34,8 | %17,4 | %4,3 | %100,0 |
| Guztira | %47,4 | %31,6 | %15,8 | %5,3 | %100,0 |

N= 43 item.

Bi egunkariak euskal presoak terroristatzat edo ETAn kidetzat hartzen dituzte gehienbat. *Diario de Navarra*ren kasuan albisteen %53an horrelako deiturak erabiltzen dira. Askotan, euskal presoen izaera politikoa ez onartzeko asmoz, *preso* hitza erabiltzen dute; hau da, ez dute inolako adjektiborik erabiltzen objektibotasun faltuan ezkatutaz. Euskal presoak direla edota preso politikoak

direla albiste oso gutxitan azaltzen da: *Diario de Noticiasen* %4,3n eta *Diario de Navarra* %6,7n baino ez.

5. Ondorioak

1. Azterturiko bi egunkariak euskal presoek gairi eskaini dioten espazioa aztertuz gero, espazioaren %15,45 baino ez diotela eman ikus dezakegu. Datu honen arabera, gairi honi garrantzi gutxi eman diotela frogatzen da. Hala ere, bi egunkarien artean alde nabaria dago, *Diario de Navarra* espazio horren erdia baino gutxiago eskaini diolako. *Diario de Noticias*ek espazio bikoitza erabili du euskal presoek gaia lantzeko.
2. Bai *Diario de Navarra* bai *Diario de Noticias*ek Espainiako informazioa lantzen duten sailean jorratu dute euskal presoek gairi hau, batez ere. Bigarren mailan Nafarroako informazioa lantzen den saila agertzen zaigu; baina Espainia atalaren kopuruetatik nahiko urrun. *Diario de Navarra* iritzi sailean jorratu izan du euskal preso politikoen gaia. Nafarroako eskualdeetako berriak lantzen diren orriak *Diario de Noticias*ek erabili baditu ere, *Diario de Navarra* ez ditu inoiz erabili. Beraz, gairi honi urruntasun kutsua eman nahi diotela dirudi; izan ere, gairi hau irakurleek espazio hurbiletik atera nahi duten irudia antzeman daiteke.
3. Albiste hauek zein sailetan jorratzen dituzten aztertuta beste ondorio bat atera dezakegu: albiste hauek normalean politika gaiak lantzen diren sail berberetan jorratzen direla.
4. *Diario de Navarra* euskal presoek gaia iritzi sailean kokatzeko maiztasuna ere azpimarratu behar da. Gairi garrantzi gutxi emateaz gain, iritzia sortzeko ahaleginetan aritu da eta ez dio orrialde berezirik eskaini gairi.
5. Bi egunkari hauek euskal presoek inguruko informazioa lantzeko garaian albiste agentziek igorritako informazioa erabiltzen dute, bereziki. Bertako kazetarien lanak ez dira %40ra ailegatzen. Hau ere bi egunkari hauek gairi honi ematen dioten garrantzi eskasaren adierazlea da; euskal presoek inguruko informazioan sakontzeko erredakzioko kazetariak aukera errazagoa izango lukete senideen bidez edo. Hala ere, agentziek igorritako lanari ematen diote lehentasuna.
6. Euskal presoek gaia jorratzean bi egunkari nafarrek informazio moduan egiten dute, gehienbat. Hala ere, informazio moduan azaltzen diren albiste asko agente sozial desberdinen iritzietan oinarritzen dira. Beraz, besteek euskal preso politikoen gaiaz zer pentsatzen duten edo zer proposatzen duten islatzen dute. Euskal presoek edo inguruko agenteek ez zaie tarterik eskaintzen, alde bateko informazioa ematen da eta.
7. Informazioaren protagonistak zeintzuk diren aztertu ondoren, Espainiako zein Frantziako Gobernuak eta alderdi politikoak dira protagonista nagusiak. Presoak eta beraien aldeko erakundeak oso gutxitan izaten dira lehenbiziko mailako protagonistak; esaterako, *Diario de Navarra* %6ra ez dira horrelako albisteak ailegatzen. Normalean, informazioaren protagonista pasiboak dira eta beraietaz mintzatzen den bitartean, berek ez dute eztabaidan parte

hartzen. Beraz, iturri batzuk erabiltzen diren bitartean, beste batzuk, ordea, bazterturik daude. Iturri ofizialak baino gehiago alderdiak hartzen dira iturritzat. *Diario de Navarra* presoen iturriak %5,88 baino ez ditu erabiltzen. Bi egunkari hauek jarduera honen bidez, ahots batzuei garrantzi handiagoa ematen dietenean, beste batzuk isilarazten dituzte eta lehenbizikoek errealitate honetaz egiten duten irakurketa legitimatzen dute. Hauen iritziari sinesgarritasun handiagoa ematen diote. Gainera egungo espetze-politika mantentzearen aldeko jarrera dutenak azaltzen dira bereziki.

8. Alderdien artean PSOE, UPN eta PP alderdiak dira gehien azaltzen direnak: albisteen %82,7 baino gehiago. Beraz, egun dagoen espetze politika diseinatu eta aplikatzen dutenak dira bi egunkari hauetan gehien agertzen direnak beren ideiak azaltzen. Arestian aipatu den bezala, bi hedabide hauek desoreka handia sortzen dute eta errealitate hau pairatzen dutenen ahotsa ez dute agerian uzten laguntzen. Gainontzeko alderdi politikoen iritzia zerbait anekdotikotzat hartzen dute eta *Diario de Navarra* Izquierda Unidako iritzia behin ere ez da azaldu guk eginiko ikerketa honetan, eta gauza bera gertatzen da *Diario de Noticias*en Herri Batasunarekin.
9. Aurreko puntuan esandakoaren ondorioz, bi egunkari hauek euskal preso politikoez aritzen direnean, ez dute euren egoeraz idazten, edo oso gutxi. *Diario de Navarra* ez du inoiz horretaz idatzi eta *Diario de Noticias* egunkariak berrien %7,7an baino ez du egin. Gainontzeko gaien artean nagusia dena hau da: espetze-politika. Honen barnean ikerketa hau egin zen garaian euskal presoak Euskal Herriratzearen edo hurbiltzearen aldeko jarrera oso zabaldua zegoen euskal gizartean.
10. Ikerketa honen beste atal batean bi egunkari hauek argitaraturiko albisteez euskal preso bizi baldintzekiko zer-nolako jarrera zuten aztertu da. Ikuspegi horretatik aztertuta, bi egunkariak jarrera positiboa islatu dute (%50 baino gehiago bietan). Dena den, egungo egoera politikoak ziur eragina izan duela eta gai honen inguruan egungo egoerarekin beste ikerketa bat egitea komenigarria litzateke hemen azalduetakoa mantentzen den ala ez ikusteko.
11. Euskal preso politikoak definitzeko bi egunkari hauek bi termino erabiltzen dituzte bereziki. Alde batetik, *etarra* hitza edo *etakidea* dira gehien erabiltzen dituztenak (%47,4). Beste aldetik, *preso* hitza erabiltzen dute politika arlotik alde egiteko asmoz. Orokorrean, preso politikoa edo euskal preso delako ukatu egiten dute eta erabiltzen duten hizkuntzan oso gutxitan agertzen da (*Diario de Noticias* egunkarian % 4,3 baino ez eta *Diario de Navarra* %6,7).

Bibliografia

- Batista, A. (1997): *Terror i negligència. Hipercor i la construcció periodística d'ETA*, Edicions de la Magrana, Bartzelona.
- Chomsky, N. eta Herman, E. (1988): *Los guardianes de la libertad*, Editorial Crítica, Bartzelona.
- Collon, M. (1995): *¡Ojo con los media!*, Hiru, Hondarribia.
- Durandín, G. (1995): *La información, la desinformación y la realidad*, Paidós Comunicación, Bartzelona.

- EHUKI taldea (1997): *Ajuria Eneko Ituna mezubideetan: Bakerako bidean ala aztoramen iturria?*, Arabera, Gasteiz.
- Herman, E. (1998): "El modelo de propaganda revisitado", *Voces y Culturas*, 11-26, Bartzelona.
- Ramírez de La Piscina Martínez, Tx. (1998): *Kazetari-I@na Euskal Herrian*, UEU, Bilbo.
- Ramonet, I. (1998): *La tiranía de la comunicación*, Editorial Debate, Madril.
- Rodrigo, M. (1991): *Los medios de comunicación ante el terrorismo*, Icaria, Bartzelona.
- Zabaleta, I. (1997): *Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia*, UEU, Bilbo.